

Irunko
euskarazko
hamabostekoa

Irunero

323

Apirilak 15, 2018

- 2** Irun Atzo Irun Gaur
- 3** Berri laburrak
- 4-5** Hartu Hitza
- 6** Bidasoa bizirik
- 7** Bizinema ekimena
- 8** Kirolak: Milien goiza
- 9** Kirolak: Txingudi rugby taldea
- 10** Aitzondo Irungo euskara taldea
- 11** Haurren leihoa
- 12** Euskara Irunen Barrena / Gazteen lanak
- 13** Beti Gazte: Jaion festa
- 14** Gazte Informazioa
- 15** Agenda

SALINAS ARAGÓN, KOLDO



Gozogilea. Irunen jaio zen 1949 urtean. La Salle eskolan ikasi ondoren, aitarekin lanean hasi zen, 1949an Luis Cuetok ireki zuen Brasil gozotegian. 1977an Koldo Salinasek bere esku hartu zuen negozioa. Sole Agirre emaztearekin aurrera eraman zuen Brasil gozotegia, 2014ko abenduaren 31n atek behin-betiko itxi zituen arte.

1983an bonboigintzan espezializatu zen Salinas, Juncal Cuevasen eskutik. Aurrerantzean, bere formazioa zabaldu zuen Kanadan eta Frantzia, gozogintzako maisu handienekin. Jaso dituen sarien zerrenda luzea da: Jean Marie Sibelaner Sari Nazionala eta beste zenbait sari garrantzitsu Frantzia, Annecyn, Auxerren, Mont de Marsanen eta Roannen, besteak beste. Frantziako Txokolatearen Anaidiko "honoris causa" kidea da, baita Chevaliers de la Brouetteko kofradea ere.

Iturria: Agustin Morate.
Irun y sus gentes.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Unai Oiartzun

Euskara zuzentzailea:

Unai Oiartzun

Publizitatea:

Sonia Garcia Olazabal
Amaia Terrazas
Ion Otxoa

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Laugarren autobus linea du Irunek

Anzaranera eta Pinarrera iritsiko da garraibide publikoa

Irailaren hasieraz geroztik martxan da IrunBus zerbitzuko laugarren linea. L-4ak hiriko erdigunea mendebaldeko auzoekin lotuko du, orain arte zerbitzurik ez zuten Anzaran eta Pinarrekin, batez ere. Fermin Calbetoneko geltokitik irtengo da, eta bertan amaituko du ibilbide biribila. Colon, Anzaran, San Miguel, Gipuzkoa eta Euskal Herria hiribideak, Olaberria, Urdanibia plaza eta San Martzial kalea zeharkatuko ditu.

Astelehenetik ostiralera, 6:45ean izango da L-4 autobusaren lehen irteera, eta 22:45ean azkena. Larunbatetan, 7:15ean lehena eta 22:15ean azkena. Igandetan eta jai egunetan, 7:45etik 21:45era ibiliko da autobusa. Prezioari dagokionez, tarifak aldatu egin dira apirilean.

Aldizkako paperezko txartela 1,40 eurotik 1,45 eurora igo da. Deskontu tarreak ere handitu dira, ordea, Mugi txartelaren erabiltzaileentzat. 1-20 joan-etorrien deskontua %46koa izango da (lehen %45ekoa zen), eta 21-50 joan-etorrien deskontua %57koa izango da (lehen %56koa zen) Garraioaren Lurraldeko Agintaritzak ezarritako neurriak dira, Mugiren erabilpena sustatzeko.

Irungo Udaleko Mugikortasuna arloaren datuen arabera, 1.671.366 bidaiari eduki zituen IrunBusek 2017an. Aurreko urtean baino %2 gehiago. Marka onena da, 2002 urtean hirian datu horiek kontabilizatzen hasi zirenetik. "Gero eta jende gehiagok aukeratzeko dituzten autobusak hirian zehar mugitzeko", adierazi du Cristina Laborda Mugikortasuna arloko ordezkariak.

Nabarmendu du, era berean, gero eta iraunkorrago izango den garraibide sistema baten alde egiten ari direla, eta Irunek, Gipuzkoako lehen autobus linea elektrikoa izango duela aurtzen.

Bestalde, Gautxori gaueko autobus zerbitzuak aurreikusitako geltokietatik kanpo gelditzeko aukera emango du, segurtasun neurri gisa. "Eskaeren arabera" izango dela zehaztu du José Antonio Santano alkateak: "Denon bizitza, eta bereziki emakumezkoena hobetzeko helburuarekin". EH Bildu udal taldeak baieztatu du proposamena haiena dela, eta udal gobernua bere egin duela. Cristina Laborda Mugikortasun ordezkariak aldiz, erantzun du haiek aspaldi ari zirela aukera hori lantzen, EH Bilduk mahai gainean jarri baino lehen.



Abenida Zubiaren eraberritze lanak esleitu ditu Irungo Udalak

Acciona enpresak egingo ditu Irun eta Hendaiaren arteko Abenida Zubiaren egitura berritzeko eta sendotzeko lanak. Irungo Udalak esleitu dizkio, 1,79 milioi euroko aurrekontuarekin. Pitzadurak zituen zubiak, eta ondorioz, gainetik pasatzea eta azpitik nabigatzea debekatu zuten iazko apirilaren 12an.

Bi estatuen arteko mugan dagoenez, proiektu konplexua izan da arlo administratiboan. Batzorde Misto bat osatu behar izan dute Pasaia eta Baionako Itsaso Kapitaniak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak. Gainera, Frantziako eta Espainiako Kosta Agintaritzaren baimenak lortu behar izan dituzte. 1910 eta 1915 artean eraiki zuten zubia. Salvador de Azua arkitektoak egin zituen lanak, 335.108 pezetako aurrekontuarekin.

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57



BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

Sinadura bilketaren azken txanpan sartu da Hartu Hitza

Apirilaren 21ean hamaika mahai egongo dira Irungo kaleetan

Bi prozesu zabalik ditu Hartu Hitza elkarteak, hilabetearen bigarren erdian. Alde batetik, herri galdeketa aldeko sinadura bilketa amaituko du apirilaren 28an. Lehenago, bilketa berezia egingo du apirilaren 21ean, denetan handiena eta animazioz girotua. Bestetik, galdera zehazteko ekarpenak egin daitezke dagoeneko, sinadurak biltzeko mahaietan, sare sozialetan, hartuhitzairun@gmail.com helbide elektronikoan edo www.hartuhitzairun.eus web gunean. Gainera, Hartu Hitzak Adosgunea asanblada antolatuko du apirilaren 28an, eta bertan parte hartzeko aukera ere badago.

“Apirilaren 21eko sinadura bilketa jai giroan egingo dugu”

Aitor Irastorza

“Herri galdeketa Donostiarekin batera egitea erabaki genuen, indar asko metatuko dugulako egun horretan”

Elena Berazadi

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meaka auzoa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com
www.felixmanso.com



Hamaika mahai aterako ditu Hartu Hitza Irun elkarteak apirilaren 21ean, auzo ezberdinetan, 3.000ra iristeko falta diren sinadurak biltzeko. Kaleak girotuko ditu, gainera, irundarrak sinatzera animatzeko. Aitor Irastorza Hartu Hitza Irun elkarteak kideak azaldu du: "Lehen sinadura bilketan bezala, oraingoa ere festa giroan egingo dugu. Loturak egongo dira, gainera, mahaitik mahaira". Sinadurak biltzea da momentu honetan, Hartu Hitza elkartearen erronka nagusia. "Herri galdeketerako protokoloa adostuta dago, ez Euskal Herrian bakarrik. European ere erabili da, eta kopuru jakin batzuk behar dira. Guri 3.000 sinadura biltzea dago-kigu", azaldu du Elena Berazadi elkarteak kideak. Mahaiak kalera atera izanak hirian presentzia edukitzea eta informazioa ematea ahalbidetu dio elkarteari. Era paraleloan, dena den, sareak antolatu ditu, enpreetan, hezkuntza zentroetan etab.

Euskal Herriaren etorkizun politikoaren inguruko herri galdeketa antolatu nahi du Hartu Hitzak, azaroaren 18an. Ondo pent-

satutako data dela adierazi du Berazadik: "Donostiarekin batera egitea erabaki genuen, indar asko metatuko dugulako egun horretan. Oso mediatikoa izango dela uste dugu". Data zehaztua dago, beraz. Ez, ordea, galdera bera. Horretarako, parte hartze prozesua martxan jarri du Hartu Hitza Irun elkarteak. Irundar orok egin ditzake ekarpenak, apirilaren 28ra arte, www.hartuhitzairun.eus web gunean, hartuhitzairun@gmail.com helbide elektronikora idatzita, sare sozialetan mezu bat utzita, edo aurrez-aurre ere bai, apirilaren 21eko sinadura bilketan, edo apirilaren 28ko Adosgunea asanbladaren bileran. Talde anitz bat eratu du Hartu Hitzak, gero, ekarpen guzti horiek aztertu eta lantzeko. "Landutakoa Adosguneari aurkeztuko dio, asanbladak azken erabakia har dezan", argitu du Elena Berazadik.

Maiatzaren 19an aurkeztuko dute galdera, Gure Esku Dagok Euskal Herri mailan antolatu duen Klik Egunarekin bat eginez. Ekainean, jaietan edo haien atarian, presentzia nabarmentzeko ekime-

nak antolatuko dituztela aurreratu du Berazadik. Ondoren, udaran zehar, itzaleko lana egingo dute. "Lan logistikoa, galdeketa bera antolatzeko behar-beharrezkoa", zehaztu du Aitor Irastorzak: "Beste herrietan jada egin izan diren herri galdeketen esperientzia dugu gure alde". Irailetik aurrera, kanpaina betean sartuko da Hartu Hitza. "Galdera barreiatu behar dugu, eta irundarrak galdeketa parte hartzerantz animatu. Badakigu Irun hiri anitza dela, eta aniztasun horri parte hartzeko aukera zabaldu nahi diogu", aipatu du Elena Berazadik. Azaroaren 18an izango da herri galdeketa.

Eszeptikoen aurreiritziak apurtu dituzte

Hainbat zalantza piztu zituen Hartu Hitza elkarteak, duela urte bete, 2018an Irunen herri galdeketa egiteko asmoaren berri eman zuenean. Aitzitik, erronka handi hura betetzeko ezarritako kronograma goitik behera bete dute, orain arte. Haien arrakastak sekreturik ez duela uste du Berazadik: "Kementsuak gara, eta determi-

nazioa dugu. Irunen herri galdeketa egin behar da, bai ala bai. Parte hartzea edozein dela ere". Antolatzailerik ondo dakite herri galdeketa ez dela loteslea izango. Alabaina, ekimenaren alde sinbolikoaren garrantzia azpimarratu dute. "Erabakitzeke eskubidearen aldeko urrats txiki bat izango da", adierazi du Elena Berazadik: "Prozesu luze baten hasiera izango da, baina Irun ere, zerbaiten abiapuntu izango da".

Bide luzea egin beharra du Hartu Hitzak, oraindik, azaroaren 18ra arte. Dena den, orain arte lortutako babesarekin pozik daude antolatzailerik. Badakite eguneroko lanerako lan talde handi bat edukitzea zaila dela. Momentu puntualetan, baina, jende ugari egon da laguntza emateko prest. "Behar-beharrezkoa da hori", onartu du Aitor Irastorzak. Orain, apirila amaitu aurretik, Irunen herri galdeketa egin dadin begi onez ikusten duten irundar guztiei sinadura emateko deia zabaldu diete.

ESKATU ZURE AURREKONTUA

943 90 34 50



bertako
Igo-gailuak | ascensores

www.bertako.eus
info@bertako.eus

Zure aurtengo mantenu kuota

%40 raino aurrezteko aukera

daukagu zuentzat

24 orduko asistentzia abisu guztientzat - Iraupen-konpromisoarik gabeko kontratuak - Orotariko zerbitzua: 100 €-tik aurrera - Euskerazko zerbitzua



Bidasoa bizirik garapen agentziako 42 langileek (34 kontratu mugagabearekin) batera lan egingo dute hemendik aurrera, Irunen, Anzaran auzoko Hendaia kalean dagoen Ducourau eraikinean. “Zerbitzuaren kalitatea, eraginkortasuna eta irisgarritasuna hobetuko ditu aldaketak”, azpimarratu du Miguel Ángel Páez Bidasoa bizirik-eko presidentea. Kostuak murriztea ere eragingo du, gainera, Kostorbeko bulego nagusietako alokairua aurreztuko duelako erakundeak, besteak beste. Urtean 50.000 euro aurreztuko ditu guztira.

Paezek nabarmendu du Ducourau jauregia Irungo ondare historiko eta arkitektonikoren parte dela. Frantziako kontsulatuaren egoitza izan zen XX.mendearen lehen erdian. 80ko hamarkadan, entsegu lokalak hartu zituen, eta auzo elkartearen lokala, beranduago. 2002an berreskuratu zuen udalak, artean abandonatuta zegoela. Irungo Udalaren hasierako asmoa zen bertan Bidasoa bizirik garapen agentzia kokatzea. Plana aldatu zuen, ordea, Mondragon Unibertsitateak Bidasoko kanpua irekitzeko asmoaren berri eman zuenean. “Abagune historikoa zen, ezin genuen pasatzen utzi”, adierazi du Paezek. Bere eskaintza egonkortuta, gaur egun Mondragon Unibertsitatea Palmera-Montero gizarte zentroan dago.

Obraren eta lekualdatzearen nondik norakoak

Instalazio berrien eraberritzearen kostua 490.000 eurokoa izan da, Ducourau Bidasoa bizirik-en beharretara egokitzeko beharrezkoak ziren altzariak eta bestelako materialak erostearena kontuan hartuta. “Obra luze joan da, baina txukun gelditu da. Albiste ona da Bidasoa bailararentzat”, aipatu du Juan Mari Altuna Bidasoa bizirik-eko presidenteordea. Epeka egingo dute lekualdaketa, apirilaren 16tik 26ra. Apirilaren 16 eta 17an El Espazioko bulegoak lekualdatuko dituzte, 18 eta 19an Autoenpleguakoak eta apirilaren 23tik aurrera egungo Kostorbeko bulegoak.

Ducourau eraikinean, beheko edo sarrerarako solairuan El Espazio gunea egongo da, lehen Anakako lokalean zegoena (lan formazioa eta orientazioa, lan eskaintzen kudeaketa eta enplegu zentroa da). Beste bi gela ere egongo dira. Lehen solairuan, Kostor-

“Zerbitzuaren kalitatea, eraginkortasuna eta irisgarritasuna hobetuko ditu aldaketak”

Miguel Ángel Páez, Bidasoa bizirik-eko presidentea

“Obra luze joan da, baina txukun gelditu da”

Juan Mari Altuna, Bidasoa bizirik-eko presidenteordea

Ducourau eraikinerara lekualdatuko dute Bidasoa bizirik

Egoitza bakarra edukiko du garapen agentziak

Eraikin bakarrean bat egingo dute Bidasoa bizirik eskualdeko garapen agentziako zerbitzu guztiek, apirilaren amaieratik aurrera. Izan ere, kokaleku ezberdinetan sakabanatuta egon dira, orain arte. Irungo Ducourau jauregian bat egingo dute. Mondragon Unibertsitatearen Bidasoko kanpua hartu du azken urteotan, baina gaur egun, unibertsitateak Palmera-Montero gizarte zentroan du egoitza. Orain, Bidasoa bizirik-ek puntu bakarrean egin ahal izango du eskaintza osoa. Gainera, kostuak aurreztuko ditu, alokairuan baitzituen aurreko lokaletako batzuk.

beko egoitzan zeuden zerbitzuak egongo dira (zuzendaritza, zerbitzu orokorrak, enpresen babeseko zerbitzua, Europako programen koordinazioa eta Bidasoa Txingudi Mugaz Gaiendiko Partzuergoa). Bigarren solairuak enpresa berrien laguntzarako zerbitzua eta coworking aretoa hartuko ditu. Ondoko eraikinean biltzeko tokiak, formazio gelak eta tailerrak egongo dira.

Jarduera anitza du Bidasoa bizirik-ek

Hogeita bost urte bete ditu aurrean Bidasoa bizirik garapen agentziak. Jarduera ekonomikoaren inguruko lan ildo ezberdinak ditu. Bidasoa bizirik-eko Autoenplegu departamentuak enpresen sorrerarako laguntza eta aholkularitza eskaintzen ditu. 1996az geroztik 1.689 enpresaren sorreran eragin du. Gainera, formazio ekintzak antolatu ditu, 800 gazteri baino gehiagori zuzendua.

Ekonomia, ikasketak eta berrikuntza departamentuak antolatu dituen berrikuntza eta lehiakortasun programek 315 enpresa parte hartzaile eduki dituzte, 2017an. Gainera, 6.000 enpresa baino gehiago biltzen dituen direktorioa osatu du Innov Mugabe web gunean.

Enplegu eta gizarte berrikuntza departamentuak 15.000 lagun baino gehiago aholkatu ditu 2017an, eta 1.200 parte hartzaile baino gehiago eduki ditu enplegua bilatzeari eskaintako tailerretan. Gainera, urte osoan zehar, Enpleguaren Astea kontuan hartuta, 516 lan eskaintza kudeatu ditu.

Turismo departamentuari dagokionez, 2017 urtean 97.187 lagun hartu dituzte Irungo eta Hondarribiko turismo bulegoek aurrez-aurre, eta 33.894 web gunearen bidez. Eskualdearen promozio turistikorako 11 ekintza burutu ditu, bestalde, turismo azoketan.

Folder

Paper-dendarik merkeena
ZIURTATUTA

Kolon ibilbidea, 2
(atzeko aldea)
www.kopiarart.net
kopiarart@kopiarart.net
943 63 93 01

Jarraipena izango du Bizinema ekimenak

Die Hard eta Aliens emango dituzte apirilaren 28an Amaian

“Zinema aretoan sortzen den energia oso-oso ederra da”

Jon Paul Arroyo

“Bi heroien arteko antitesia ikustea oso interesgarria da”

Eneko Sánchez



Joan den abenduan abiapuntua jarri zuen Bizinema programak jarraipena izango du, orain, Donostiako Bang Bang zinemaren parte hartzearekin. Ibilbide handia izan du Gipuzkoako hiriburuan, eta aurten, Irungo Bizinemarekin bat egin du, antzeko planteamendua baitute. Bang Bang Bizinema izena hartu du programak, eta apirilaren 28an eskainiko du lehen emanaldi bikoitza, Die Hard eta Aliens filmekin, Amaia Kultur Zentroan. Bertsio originalean emango dituzte, gaztelaniazko azpitituluekin.

Film klasikoak bertsio originalean emateko proposamena bozkatuenetako bat izan zen, 2017ko Irungo aurrekontu parte hartzaileetan. Eneko Sanchezek eta Adur Amilibiak hartu zuten ideia hura aurrera eramateko ardura. Bizinema programa antolatu zuten, eta abenduan egin zuten lehen sesioa, Gremlins eta Jurassic Park filmekin. “Arrakasta handia eduki zuen, eta feedback interesgarria eta aberasgarria egon zen parte hartzaileekin”, baieztatu du Juncal Eizaguirre Kultura arloko ordezkariak.

2018an, Donostian dagoeneko ibilbidea egin duen Bang Bang Zinemarekin bat egin du Irungo ekimenak. “Bizinemaren sorreratik eduki dugu harremana. Lankidetzaren formalizatzeko proposamena jaso genuenean, jarraipen naturala iruditu zitzaigun”, aitortu du Jon Paul Arroyo Bang Bang zinemaren arduradunak: “Guretzat, Bang Bang marka egonkortzeko modua da, eta beste eskualdeetara zabaltzekoa”. Eneko Sánchez Bizinema ekimenaren dinamizatzaileak uste du Bang Bang programak duen esperientziak indarra emango diela.

Zinema baino gehiago

Apirilaren 28an egingo dute hurrengo sesioa, 18:00etatik aurrera, Amaian. “Leku ederra da, areto ikusgarria du kultur zentroak”, adierazi du Arroyok. Kultur kontsumoa sarritan bakarka eta dispositibo indibidualetan egi ohi den garaian, zinema saioa konpartitzearen esperientzia defendatzen dute: “Zinema gehiago disfrutatzen da aretoan, lagunekin, film hori egun eta ordu horretan ikustera joateak batu zaituztelako. Sortzen den energia hori oso-oso ederra da. Emozio komunitatea eratzea da gure asmoa”.

Filmak bertsio originalean emango dituzte, ingelesez, kasu honetan, sortu zituzten bezala. “Esperientzia hori oso gomendagarria da”, aipatu du Eneko Sanchezek. Gainera, Bizinema Bang Bang programak ez du zinema emanaldi hutsa eskaintzen. Aurkezpenak, material erakusketa, zozketak, ambientazioa eta bestelako ezustekoak egongo dira. 18:00etan irekiko ditu ateak Amaia Kultur Zentroak, eta 5,35 euro balioko du sarrerak. Turismo bulegoan eta www.kutxasarrerak.net web gunean eros daitezke jada.

Akzio film sesio bikoitza

Filmei dagokienez, Die Hard (John McTiernan, 1988) eta Aliens (James Cameron, 1986) emango dituzte. 80ko hamarkadako akzio filmak dira biak. Hautaketaren azalpena egin du Sanchezek: “Generoa konpartitzen badute ere, ezberdinak dira, osagarriak. Bi heroien antitesia ikustea ere oso interesgarria da”. Film bereziak dira antolatzaileentzat, baina kontziente dira, gazteenentzat filmak ezagutzeko aukera izango dela.

Milien goiza eraldatu du BATEk

Jardunaldi inklusiboa eta solidarioa izango da aurten, apirilaren 22an

Azken bi urteetan 4 x milia erreleboen inguruan antolatu duen goizari beste buelta bat eman dio Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak. Milia distantzia (1.609m) bera izango da orain oinarria, eta haren inguruan antolatu du apirilaren 22ko goiz osoa. "Ez da antolatzen ditugun beste zazpiak bezalako lasterketa bat", nabarmendu du Ibon Muñoz BATEko kirol zuzendariak. Adin eta gaitasun fisiko eta mental guztietako emakumeek eta gizonek edukiko dute tokia.



Zabaltza plaza izango da *Millas por la salud* ekimenaren erdigunea. Bertan hasi eta bukatuko da Irungo miliaren zirkuitua, Txanaleta eta Genaro Etxeandia plazak lotuko dituen. Haren inguruan bira egingo du goiz osoak. 10:00etan, T'ttapi-T'ttapa programako adinekoek emango diote hasiera, oinez. Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak eta Osakidetza antolatzen dute programa, udalen laguntzarekin. Irunen eta Hondarribian elkartzen diren taldeetako emakumeek eta gizonek parte hartuko dute BATen ekimenean, eta 50etik gora espero dituzte.

10:45ean, aurreko urteetan ekimenaren oinarri izan den 4 x milia lasterketa egingo dute. Kuadrillei eta enpresei zuzendutako lasterketa izango da, eta sailkapenak eta sariak egongo dira. Goiz erdian, kirol egokitua txanda izango da. 11:30ean gurpil-aulkiak eta handbike-ak aterako dira, milia egokitua egitera. Ondoren, 11:45ean, adimen urritasuna duten neska-mutilentzako milia erdi egokitua egingo dute. Gurasoak, atletismo eskolako haurrak eta BATEko federatuak aterako dira haiekin. Jurgi Olasagasti kirol egokituko Gipuzkoako federazioko teknikariak balorazio baikorra egin du: "Herrietan hain zabalduta dauden lasterketetan edonork parte hartzeko aukera gehiago nahi genituzke".

12:00etan, bikoteentzako lasterketa egongo da. Emakumeen edo gizonen bikoteak, eta mistoak aurkeztu ahal izango dira. Hiru milia egin beharko ditu bikoteak, ia bost kilometro, eta batera iritsi beharko du helmugara. "Oraingoz, izen-emateei dagokienez, arrakasta gehien edukitzen ari den proba da", aurreratu du Ibon Muñozek. 12:45ean, milia solidarioa egingo dute. Edonork parte hartu ahal izango du, hiru euroren truke, eta bildutako diru guztia AECC minbiziaren aurkako elkarteak jasoko du. Ez da sailkapenik eta saririk egongo. Elena Olasagasti Bidasoako AECCko presidentek baieztatu du biltzen den dirua oso baliagarria izango zaiela.

Igande Sasorekin bat

Jarduera guzti horiekin batera, Igande Sasoi ekimena antolatuko du BATEk, udalarekin elkarlanean. Horrela, atletismoko diziplina ezberdinekin lotutako jarduera ezberdinak eskainiko ditu hurbiltzen diren haurrentzat. Proba lehiakorretarako izen-ematea zabalik dago kirolprobak.com web gunean (28 euro lauko taldeentzat, 18 euro bikoteentzat). Dortsalak BATEk Palmera-Montero gizarte zentroan duen bulegoan jaso ahal izango dira apirilaren 21 goizean, edo lasterketen aurretik, Zabaltza plazan. Martxa solidarioarako izen-ematea Zabaltzan bertan egin beharko da, hiru euroren truke.

Igoera zuzena konplikatua zaio Txingudiri

Bera Beraren aurka berdindu dute beltzek Plaiaundin (5-5)

Bosna berdindu dute Txingudik eta Bera Bera Bk, erabakigarria izan daitekeen partidaren. Apirilaren 14an neurtu dituzte indarrak Euskal Ligako bigarren mailako bi talde hoberenek, Plaiaundin. Orain donostiarrak daude aurretik sailkapenean, ligaxka bukatzeko bi jardunaldi falta direnean. Ezustekorik ez baldin badago, lehen mailara zuzenean igoko dira, eta bidasoarrek play-off bat jokatu beharko dute.

“Joan den urteko gazteenek esperientzia gehiago dute aurten, eta haien progresioa nabaritzen da”

Iñigo Camarero

“Ez dugu uste Bera Bera Bk partida gehiago galduko dituenik”

Unai Herrero



Espero zitekeen bezala, norgehiagoka gogorra izan da Txingudiren eta Bera Bera Bren artekoa, Plaiaundin. Oreak nagusi izan da berdegunean, eta markagailuan ere bai, azkenean. Orain, donostiarrak lau puntuko errenta dute sailkapenean bidasoarrekiko. Hortaz, litekeena da haiek ligaxka irabazi eta igoera zuzena lortzea. Bigarren gelditzen denak beste aukera bat edukiko du, play-off formatuan, jaisteko arriskua duen talde baten kontra. “Joan-itzulian jokutzen da, baina konplikatua izaten da”, baieztatu du Iñigo Camarero. Halako esperientziak eduki izan ditu Txingudik azken urteetan, eta ez du igoera lortu.

Aurten, dena den, helburua begiz jota du Txingudik. Hala ekin zion 2017-2018 kirol sasoiari. Iazko belaunaldi aldaketa egonkorta da aurten, eta beste urrats bat emateko prest dago taldea. “Joan den urteko gazteenek esperientzia gehiago dute aurten, eta haien progresioa nabaritzen da”, azaldu du Iñigo Camarero. Horregatik, igotzea “nahitaezkoa” dela uste du. Askok esatea dela pentsa daiteke, baina Camarero gogorarazi du ligako lehen fasea irabaztea lortu zutela, garaipen sorta handi batekin, eta Bera Bera B aurkaria atzean utzita.

Bigarren fasea gogorragoa izan dela onartu du, Bera Bera B taldeaz gainera, beste multzoko bi talde onenak dituztelako aurkari. Agerian gelditu da, dena den, donostiarrak eta bidasoarrak direla indartsuenak. “Ez dugu uste Bera Bera Bk partida gehiago galduko dituenik”, adierazi du Unai Herrero. Horregatik, onena eman beharko du Txingudik. Neurketez harago, entrenamenduetan jarri du arreta Camarero beteranoak: “Ondo entrenatu beharra daukagu, kontzentratuta eta serio. Hori egiten dugunean, jokoan nabaritzen da”.

Urteurrenari begira

2019 urtean urrezko ezteiak egingo ditu Txingudi Rugby Taldeak. Ordurako, kategoria guztietan taldeak edukitzeko helburua beteko du. “Neskak Hernanin jokatzeko ditugu, baina gainerakoan, maila guztietan dugu presentzia”, argitu du Camarero: “Rugby eskolan lan ona egiten ari gara, eta kluba asko hazten ari da”. 50 urteak ospatzeko, talde nagusia Euskal Ligako lehen mailan edukitzea garrantzitsua litzateke. Horretan ahalginduko da Iñaki Lekuonak, Ivan Tizonek eta Hugo Poncinik zuzentzen duten taldea.

Aitzondok Euskaraldia izango du lehen erronka

Irunen euskarak bizi duen egoera iraultzea dute helburu



“Euskararen alde lan egingo zuen eragile indartsu baten beharra antzeman genuen”

Mikel Garcia

“Hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala da Euskaraldia”

Maite Lopez de Arbina

Euskaraldia izango da Aitzondo Irungo euskara talde berriaren lehen ekimena. Aurreneko urratsak eman ditu elkarteak; erakunde publikoekin, hiriko euskara eragileekin eta Euskaraldiaren dinamizatzaile diharduen Euskaltzaleen Topagunarekin bildu da, hurrengo hilabeteetako bide-orria osatuz hasteko. Apirilaren 14an bilera irekia egin dute Palmera-Monteron, Euskaraldia antolatzeko hurrengo urratsak zehazteko.

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra izango da Euskaraldia, Euskal Herriko ehunka hiri eta herritan. “Hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala da”, azaldu du Maite Lopez de Arbina Aitzondo euskara taldeko kideak: “Erakunde publikoak eta euskararen aldeko herri mugimendua elkarlanean ari dira ekimena bultzatzen”. Herritarrek hamaika egunez euskaraz aritzeko konpromisoa har dezaten lortzea da helburua. Lopez de Arbinak azaldu ditu parte hartzeko bi moduak: “Alde batetik, Ahobiziak egongo dira, ahal duten guztietan euskaraz egiteko prest egongo direnak, eta bestetik, Belarriprest izenekoak egongo dira, euskaraz egiteko konpromisoa hartu gabe, euskaraz entzutera engeiatuko direnak, solaskidea euskaraz egitera animatuz”. Txapa bana jarrita elkar identifikatuko dute herritarrek, hamaika egun horietan zehar.

Donostiako Egia auzoan probatu zuten ekimena, lehen aldiz. Baina Lasarte-Oriakoa da kasu adierazgarrietako bat. Bertan, ekimenaren eragina aztertzeko ikerketa egin baitzuten, euskararen erabilera nabarmen handitu zela ondorioztatu. “Bai ekimena bukatu eta berehala, eta bai handik hiru hilabetera ere”, zehaztu du Maite Lopez de Arbinak. Urrutiago joan gabe ere, Behe Bidasoa eskualdean, hondarribiarrek eta hendaierrek hilabeteak daramatzate Euskaraldia prestatzen. “Irun ez da gutxiago izango”, aipatu du Lopez de Arbinak. Irungo Udalak ekimenean parte hartzeko izena eman du, eta harremanetan dago Aitzondo euskara elkartearekin, Euskaraldia ahalik eta modu

eraginkorrean antolatzeko asmoz. Lehenago, urtean zehar ekintza ezberdinak eta formazio saioak antolatuko dituztela aurreratu dute Aitzondoko kideek.

Abiapuntua izango da Euskaraldia

Aitzondo euskara taldearen helburuak harago doaz. Baina momentuz, Euskaraldian jarriko du arreta. “Abiapuntu gisa, ekimen aproposa eta eraginkorra izan daitekeela uste dugu”, adierazi du Mikel Garciak. Duela bi urte eta erdi, euskara taldea sortzeko lehen saiakeran parte hartu zuen Garciak. “Ez genuen urrats handirik ematea lortu”, zehaztu du. 2017ko azaroan bildu ziren berriro, Euskaraldia zerumugan: “Oraingoan bai, forma ematea lortu dugu, eta Aitzondo euskara elkarte izan da emaitza. Irunen euskarak bizi duen egoera kaskarrak bultzatuta, eta egoera hori iraultzeko herritarren aktibazio falta ikusita, euskararen alde lan egingo zuen eragile indartsu baten beharra antzeman genuen”.

Lau helburu nagusi ditu Aitzondo euskara taldeak: euskararen egoeraren inguruan hausnartzea eta kontzientzia zabaltzea, euskaldunak aktibatu eta ahalduntzea, euskaldunen hizkuntza eskubideen urraketak salatzea, eta Irunen hizkuntza politika egoki bat gauzatzen dela ziurtatzea. “Hiri handia izanik, euskaldunok nahiko dispertsatuta gaude, baina asko gara, eta hori aprobetxatu beharra dugu”, aipatu du Mikel Garciak. Irungo euskaldunak eta euskaltzaleak batzeko eta haien arteko harremanak ehuntzeko erronka du Aitzondok. Euskaraldia lehenengo urratsa izango da, bide horretan. Azpimarratu dute parte hartzea guztiz irekia dela. Euskaraldia antolatzea soilik anima daitekeela jendea, edo nahi izanez gero, euskara taldeko bazkide egiteko aukera ere badagoela.

Eguzkitza HH



Euskaraz, Irunen barrena

Gazte gaztetatikan

Gazte-gaztetatikan herritik kanpora, estranjeri aldean pasa det denbora. Egiya, toki guztietan gauzonak badira, bañan biyotzak diyo zuaz Euskalerrira.

Agur nere biyotzeko amatxo maitia, laister etorriko naiz konsola zaitia, Jangoikuak berak nahi du ni urez juatia, ama zertarako da negar egitia.

Gure gurasoengandik ikasiya, gure gazte denboran

Irungo P.S. andereari jaso (1960-VIII-8). (ik. 263 alea) (El Bidasoa, 1960-VIII-27)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

El Pilar LH3

Patxi Zubizarreta



Patxi Zubizarreta Ordizian (Gipuzkoa) 1964ko urtarrilaren 25an jaio zen. Euskal Filologiako ikasketak Gasteizen egin zituen. Helduen literaturan eta itzulpengintzan lan asko egindakoa den arren, haur eta gazte literaturan argitaratutako lanengatik, bereziki, ezaguna da.

Berak hamahiru sari lortu ditu, horietako hiru Haur eta Gazte literaturaren Euskadi Sariak dira: 1998an, *Gizon Izandako mutila*; 2006an, *Pantaleon badao*; eta 2010en, *Xia Tenzinen bidaia miresgarria*. Horrez gain, kolaboratzaile lanak egin ditu hainbat hedabideetan.


Bere liburu batzuk hauek dira: *Elefante bat hegan*; *Pikolo*; *Beroki Gorria*; *Usaa, hegan etorritako neskatoa*; eta *Mundua baloi batean*.



Blanca Garrido

LH 6. Maila

EL PILAR IKASTETXEA- MARIAREN LAGUNDIA



Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



Indartsu itzuliko da Jaion

Apirilaren 21ean egingo dute Lakaxitaren urteurren festa




Jaion festa antolatu dute aurten, Lakaxita gune autogestionatuaren urteurrena ospatzeko. Urtero egin izan dute, baina iaz, Lakaxitan trantsizio prozesu betean zeudela eta, bertan behera gelditu zen. 2018an, ordea, indartsu itzuliko da, egitarau zabalago batekin. Apirilaren 21ean izango da, larunbatarekin, eguerditik gaueko ordu txikitara.

“Urtean zehar Lakaxitan egiten dena kalera ateratzeko aukera da”

Iker Eizagirre

“Gazte talde bat biltzen ari da, proiektu interesgarriekin”

Koldo Martinez de Antoñana



Joan den urtean hausnarketak eduki zuen lehentasuna Lakaxita gune autogestionatuan. “Ez zen indar nahikorik egon festa aurrera ateratzeko. Urtean Jaion antolatu zen ibili izan den belaunaldia nekatu samar zegoen”, aitortu du Iker Eizagirrek. Ikasturte honetan beste dinamika batekin hasi dira Lakaxitan, eta irailaz geroztik, urteurren jaia antolatzeko makineria

martxan jarri zuten. Egitaraua zabaltzea erabaki zuten, bi helburu nagusirekin. Eizagirrek azaldu ditu: “Alde batetik, iruditzen zitzaigun Jaionen formatua publiko zehatz bati zuzendua zegoela. Gainera, pentsatu genuen urtean zehar Lakaxitan egiten dena kalera ateratzeko aukera baliatu beharra zegoela”.

Hori dela eta, aurtengo Jaion festa 12:00etan abiatuko da, Urdanibia plazan, Pura Cuina antzezlantarekin, familiek haurrekin gozatu ahal izan dezaten. 14:00etan bazkaria egingo da Peña kalean, Lakaxitan elikadura burujabetzaren inguruan lanean ari diren kolektiboen eskutik. Sarrerak 12 euroren truke daude salgai, Altzoan, Kabigorri, Eskinan, Deporren, Amoñin eta Aian. Bazkalostean bertso poteoa egingo dute, Irunabar elkarteko kideekin. “Despistatzeko denbora gutxi egingo da, 17:00-17:30ean kamioia aterako baita Moskutik”, azpimarratu du Iker Eizagirrek.

Jaion festako hitzordu nagusia izaten da kamioiko kontzertua. Irungo erdi gunea zeharkatzen du, Urdanibiatik Lakaxitara, Colon Ibilbidean zehar. Oso sinbolikoa dela adierazi du Eizagirrek: “Hiriko merkataritza arteria nagusian dauden multinazionalak, bankuak eta higiezin agentziak dira guk borrokatu nahi dugun prekarietatea sortzen duten agente garrantzitsuak”. Eredu horretan bizi den hiria asaldatzea da Jaionen asmoa. Probokazio puntu bat du, beraz. “Beti ere jaiarekin, koloreekin, mozorroekin etab.”, zehaztu du Eizagirrek.

Musika eskaintza zabala

Etxeke uzta leloa hautatu dute aurten, La-

kaxitan aurrera eramaten den bizitza eredu askea aldarrikatzeko. Eta kamioiko kontzerturako ere, bertako musikariak osatutako Fight The Power taldea presatatu dute, azken urteetan ohitura bihurtu den bezala, musika talde baten bertsioak jotzeko. Arantza kendu du Iker Eizagirrek, bertan parte hartuko baitu, berarengan eragin handia izan duen Negu Gorriak taldea omenduz: “Zeharka bada ere, horrelako espazioen alde ekarpen handia egin duen taldea da. Eskola politikorako talde bat izan da, jende askori kontzientzia kritikoa pizten lagundu diona”.

Ondoren, Lakaxitan, beste lau talde ariko dira. Sangre de Mono talde irundarra, On, Las Tuerkas eta Bide Bakarra. Emakumeen presentzia bermatzen ahalegindu direla nabarmendu dute antolatzaileek. “Las Tuerkas-eko taldekide guztiak emakumeak dira. On taldeko abeslaria ere bai, eta Emarock ekimenean parte hartu du, emakumeek musika taldeetan duten presentzia ikustarazteko eta handitzeko helburuarekin”, azaldu du Koldo Martinez de Antoñanak. Aurten Lakaxitan ematen ari den belaunaldi aldaketaren ordezkaria da Martinez: “Gazte talde bat biltzen ari da, proiektu interesgarriekin”. Jaion festa ere, gazteak erakartzeko abagunea izan daiteke Lakaxitarentzat.



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Web gunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Udara honetan ere Gazte Elkartrukeak izango ditugu!

Pixkanaka-pixkanaka udara hurbiltzen ari da... Aurten zerbait ezberdina eta dibertigarria egin nahiko zenuke?

13-17 urte bitarte duzue?

Ba al dakizu aurten Kultur Ondarearen Europako Urtea dela?

Beste herrialdeetako gazteekin Gazte Elkartruke batean parte hartzea gustatuko litzazuke?

Informazioa gehiago:
www.irun.org/igazte

Kontenporanea Deialdia 2018

Kontenporanea, arte, diseinu eta kulturaren arloan trebatutako gazteek, Irungo hirian antolatzen duten Arte Garaikide Topaketa da. Diziplina desberdinak batzen dituen izaera kolektibo eta kolaboratzailea duen proiektua da Kontenporanea. Helburua, bertan parte hartuko duten artista edo kolektiboen lanak plazaratzea da, bertako zein herrialde desberdinetan aurkitzen diren proiektu artistikoak ezagutarazteko, egileen esperientziak partekatzeko intentzioarekin.

Bakarkako artista zein kolektiboei luzatzen zaie 3. edizioko deialdia, eta oraingo honetan ez da adin mugarik egongo. Edizio honetan gai nagusia eraikuntza izango da, bertatik galdera eta eztabaidagai desberdinetara eramango gaituzten ondorengo lau azpi-gaiak barneratuz: Ingurumenaren

eraikuntza, gizarte eraikuntza, ideien eraikuntza eta espazio eraikuntza. Deialdi honetarako, bereziki "iruditegi kolektiboko ideien esanahien berreraikitzearen" inguruan hausnartuko da.

Baldintzak:

- Artista nazional zein nazioartekoak aurkeztu daitezke, haien proiektua edo zein disziplina artistikokoa delarik.
- Proposamenak jpg edo pdf formatuetan bidali beharko dira, ondoren inpresio digitaleko 180 x 180zm-ko euskarrietan erreproduzitu ahal izateko.
- Artista bakoitzak irudi bakar bat bidali dezake, 72dpi-ko kalitatean. Bestalde, parte-hartzailea hautatua izan ezker, 300dpi-ko kalitatezko irudia izan dezakeela bermatu beharko du, aurretik azalduriko dimentsioetan inprimatu ahal izateko.

Hautaketa irizpideak:

- Obren hautaketa kalitatearen arabera izateaz gain, genero berdintasuna hobetsi eta nazionalitate aniztasuna ere kontuan hartuko da, mugaz gaindiko topaketa baita.
- Aukeraketa deialdiko gaiarekin duen harremana kontuan hartuz burutuko da.

Hasiera eta bukaera data: maiatzaren 18tik 20ra.

Informazio gehiago: www.irun.org



Unibertsoa Nire Eskuetan (Telmo Iridoy)



Erakusketa: " Unibertsoa Nire Eskuetan "

Artista: Telmo Iridoy

Izarrak, planetak, meteoritoak, eta bestelako elementu espazialak dira "Unibertsoa Nire Eskuetan" erakusketako protagonistak. Teknika xilografikoarekin landutako es-tampa hauetan, gizakiarentzat helezina den unibertsoa, eskuragarri duen elementu bihurtzen da, modu honetan, ez da harrizkoa izango, botila baten barnean, atearen bestaldean edo eskuen artean topatzea.

Egunak: apirilaren 12tik maiatzaren 19ra

Orudategia: 17:00 - 21:00 (asteartetik larunbatera)

Lugar: Martindozenea Gaztelekua

Tailerra: Linoleo grabatua (15 plaza)

- 8 plaza: 12-17 urte

- 7 plaza: 18 urtetik gorakoak

Eguna: apirilak 19

Ordua: 17:30 - 19:30

Tokia: Martindozenea Gaztelekua

Plaza kopurua mugatua!

Prezioa: Doan

Informazio gehiago:

www.llamavivaprint.com www.llamavivatattoo.com llamavivaprint@gmail.com

IGazteren Buletin Elektronikoa

Egunean egon nahi al duzu enplegu, ikastaro, mugikortasun, hezkuntza, aisialdi, boluntarioritari buruz???

Izena eman ezazu <http://buletin.irun.org/eu/igazte> estekan IGazteren buletinaren, eta ostiralero jasoko duzue zure postan!

Geldeiguzu!

Interesatzen zaizun guztia zure eskura !!!



INTERESATZEN ZAIZUN GUZTIA, ZURE ESKURA!
WWW.IRUN.ORG/IGAZTE

Apirilak

20

Kontzertua

Zer:

Irungo kontserbatorioko gradu amaierako ikasleen kontzertua

Ordua:

19:30etan

Non:

Oiasso Erromatar Museoa Eskoleta, 1

Prezioa: Doan

21

Zinema

Zer:

Haurrentzako zinema (7-12 urtekoentzat) "Savva, corazón del guerrero"

Ordua:

11:00ean.

Non: CBA Udal Liburutegia - Erabilera anitzeko aretoa

San Juan plazan

Prezioa: Doan

22arte

"Fotoperiodismo: Relatos de un tiempo" erakusketa

XX. mendeko 30eko hamarkadan, goieneko unera iritsi zen argazki-kazetaritza. Erreportaje argazkiak gerra zibilera arte ez zuela lortu definitzen duen elementua idatzi den arren, kontua da urte batzuk lehenago eta, bereziki, Bigarren Errepublikaren ondoren, informazio grafikoa ezinbestekoa zela jadanik kazetaritzarentzat.

Non: Laboral Kutxa Colon Ibilbidea, 13

Ordutegiak:

Astelehenetik ostiralera 18:30-20:30

Larunbatetan, igandetan eta jai egunetan: 11:00-13:00 eta 18:30-20:30

Prezioa: Doan



22

Bidasoa ibaiaren XLIX. Nazioarteko jaitsiera hegalekin

Zer:

Ibilbide luzea Endarlatsatik irten eta Santiagotarrak-en amaituko da. Ibilbide laburra 4 kilometrokoa izango da, Amute-tik kirol-portura arte.

7:30etan parte-hartzaileak kirol-portuan geldituta daude, handik ibilbide luzeko parte-hartzaileak Endarlatsaraino abiatuko dira. Irteera 8:30etan izango da eta lehenengoak 10:00ak aldera iritsiko direla espero dute.

Ordua:

8:30etan

Non:

Bidasoa ibaian

22-23

Liburu azoka

Zer:

Liburuaren Nazioarteko Eguna.

Ordua:

11:00-20:00

Non: Irungo Zabaltza Plazan

Prezioa: Doan

23

Idazketa tailerra

Sormenezko idazketa tailerra Itziar Sistiagaren eskutik: "Poeta en Nueva York"


Ordua:

19:00

Non:

CBA Udal Liburutegia San Juan Plaza, -1. solairua

Prezioa: Doan



Margo erakusketa eta Arteterapia Caser Anakan

Miren Gonzalezek eta Ainara Oskozek Arteterapia tailerra egin eta haien obrak erakusten dituzte Caser Residencial Anakan



Apirilaren 13an Miren Gonzalez eta Ainara Oskoz artisten erakusketak inauguratu zituzten Caser Residencial Anakan. Ekainera arte ikusi ahal izango dira erakusketak.

Alde batetik, Miren Gonzalez Goikoetxea Tolosako margolariak "Sustraiak" proiektua aurkeztu du. Erakusketa kafetegian kokatua dago, egoitzako jendeari zuzendua dago, baita kanpoko jendeari ere. 2012an hasi zen Gonzalez proiektu horrekin: "Oinarriak ihesaren ideian datza. Gaur egungo egoera kulturalak leku hobe baten bila narama. Argia lur-azpira eramatea erabaki dut. Lur-azpian, oraingo honetan, gordeleku, babes, bero, ziurtasun edo mugimendu kontzeptuekin du zerikusia. Ideia hauek buruan, lur-azpiko giroa eraikitzearekin diot, tuberkulu eta sustrai baliatuz. Horrela, lur-azpiko munduan murgildurik, sustrai sareak sortu ditut, erritmo desberdineko konposizioen bidez".

Bestalde, Ainara Oskoz Bergaretxe margolari irundarrak, "Erre-trakto" erakusketa prestatu du erabilera anitzeko

aretoan: "Erre-trakto galeria 2013an sortutako proiektu bat da, erretratu naturalaren inguruan lan egiteko; larruaren koloreak, begien izpiak, larruaren testurak etab.... Horretarako 365 erretratu egitea pentsatu nuen, denak tamaina eta teknika berdinean (olioa kartoian) geroago egongela bat betetzeko lan guztiekin. Bost urte geroago gaia oraindik interesatzen zait. Aldaketa batzuk sartu ditut, teknika eta muntaiaren aldetik, lan berrietan".

Orain arte 124 erretratu egin ditut, eta Caser Anakan jarraituko du bere lana egiten. Horretarako, ostiralero, 16:00etatik 18:30etara boluntarioak behar ditut erretratuak egiteko. Izen-ematea Caser Anaka egoitzan egin daiteke, 943 66 77 80 telefonora deituz, edo anaka@caserresidencial.com emailera idatziz.

Arteterapia

Miren Gonzalez eta Ainara Oskoz urtarrietik ari dira astero Arteterapia tailerra egiten. Hasieran pintura eta buz-

tina egitea proposatu zuten, baina hasieratik, pinturak arrakasta gehiago izan zuen. Honen helburua prozesua bera da, hau da, helburua eroso sentitzea eta lasaitasunez etortzea da. Hori lortu dute jada.

Tailerraren izena Arteterapia da, bakoitzak bere terapia egiten duelako. Batzuek, adibidez, beraien bizitzen ilustrazioak margotzen dituzte, beste batzuek, margotzen dutenean lasaiago sentitzea lortzen dute, beste batzuek egoitzako beste pertsonekin gehiago hitz egitea, etab. Beraz, emaitza ez da garrantzitsuena, esan bezala, prozesua bera baizik.

Bestalde, tailerra oso pertsonalizatua da. Asteazkenero bi orduko tailerra izaten da Caser Anakako eguneko zentroan. Bertan, bai Mirenek bai Ainarak, nagusiekin parte hartzen dute. Prestatutako erakusketekin, egoitzako ikasleek beraien obrak ikusteko aukera izan dute.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM